

# IRUÑA-VELEIAKO EUSKAL OSTRAKEI BEGIRA

Juan Martin Elexpuru

## Aitzin-oharra

Euskal Filologian doktore naizela dioen paper baten jabe naizen arren, ez naiz espezialista protoeuskaran, ezta gutxiagorik ere, zale afantsua baino ez, eta horregatik, irakurle sufritua, ez espero zenbaiten zehaztasunik terminologian, sakontasunik analisisian eta ziurtasunik ondorioetan.

## AURKIBIDEA

- a) Sarrera
  - b) Ostraketako euskal testuak
  - c) Agertzen diren euskal hitzak
  - d) Testuen azterketa laburra
  - e) Polemika sortu duten gai batzuk
  - f) Ondorio gisa
- Euskarazko ostraketako hiztegi txikia

## a) SARRERA

Zalantzekin, baina ostraken benetakotasunean sinisten dudanez (Ik. Berria-ko artikulua), lan apur bat hartu dut bertan agertzen diren testuak aztertzen. Horretarako, **alava.net** orriko argazki eta txostenez baliatu naiz batik bat, eta **veleia.net** eta **celtiberia.net** webguneak eta **ostraka.mundua.com**, **terraeantiquae** eta **anguloscuero** blogak ere begiratu ditut. Eskerrak bereziki ostraka.mundua blogekoei, gune horretatik informazio ugari jaso baitut lantxo hau burutzeko.

Ez dakit argazki guztiak argitaratu diren. Hortik zehar aipatzen den testuren bat edo beste ezin izan baitut aurkitu. Bestalde, idazkun gehienak ondo samar irakurtzen diren arren, batzuk ez dago modurik. Dena dela, irakurleak eskura ditu interneten artxibo (ia) guztiak, eta atera ditzake bere ondorioak.

Dagoen materiala gainerik deskribatzera eta iritzia ematera mugatuko naiz. Gure adituek epaia emanda dutenez, zilegi bekigu afizionatuoi bazterrak apur bat endredatzea.

b) OSTRAKETAKO EUSKAL TESTUAK

Argazkiak ikustean konprobatzen denez, ostraka asko ez dira irakurtzeko errazak. Beste askok, letrak higituta edo guztiz desagertuta dituzte. Beraz, ziurtatu nahi duenak jo dezala argazkietara. Dena dela, numerazio-akatsak ere badaudela dirudi, zenbaki berdinez bi edo hiru idazkun agertzen baitira (batzuetan aurrea eta atzea seinalatzen da, a eta b, piezaren bi aurpegiak, baina beste batzuetan ez dugu ulertzen).

12077) VIILIIIA NOVA / VIILIIIA VICI (Veleia nova, Veleia bizi)

13349) GIV / SALII (giu sale)?

13361) NIIRII / ATA , ZII / YAVH / TA (nere ata, ze Yavh[e] ta)

13363) YAVHII / GIIVRII ATA (Yavhe geure ata)

13363?) NIIV ELOSI / TA NIIVRE / AMA MIRTO TA (neu Elosi ta neure ama Mirto ta -da-)

13364) GIIVRII (?) ATA ZUTAN/ IIGIN BADI ZVRII (geure (?) ata zutan egin badi zure)

13364) GIIVRII ATA ZVTAN / .Y... IIISVS TA / ....I... ZVR[E] (geure ata zutan. ... Y[avhe] Iesus ta ....i.... zur)

13365) GIIVRII ATA ZVTAN / NA (geure ata zutan na)

13366) NA (na)

13367) IAN / TA / EDAN / DENO (ian ta edan deno)

13368-a) DENOS / ZVRII / NAIA (denos zure naia)

13371?) ...RII GIIVRII ATA ZVTAN (...re geure ata zutan)

13371a) IAVIII / ZVTAN IZANA (Iave zutan izana)

13378) IVAN III? (Ivan III)

13382) SABA / ABRAHAN / ???O (saba Abrahan ...O)

13393) ATA – AMA / NIIBA – RIIBA / SIIBA- SABA / MONA (ata-ama ama neba- reba seba-saba mona)

13394) III NIIV? NAIA NIIVRII (III neu? naia neure)

13395) ..AR? / VRA / SVA (.ar (?) ura sua)

13396) ??MIRTO / ??GITV LA? / EDA, IAN (Mirto (?) gitu la eda, ian)

13397) BIITA, ZVRI, ARO[S] / VRDIN, GORY, / .ANA, BII (beta, zuri, aro[s] urdin, gory, .ana, be

13398) BIITI (beti)

15147) VRDIN / X / ISAR (urdin x isar)

15542) A B C D E F G H I K I M [.] O P Q R [.] T V X Y Z

15912) NIIVRII / AMA, RO / MAN / ILTA, CIS / TIANA (neure ama, Roman ilta, Cistiana)

15912) NIIVRII ATA / GAV ILTA / NIIVRII AM (neure ata gau(r?) ilta (hil da?)  
neure am(a?))

15916) NIIVRII /ATA (neure ata)

15917) NIIV MII / TA RIIBA / II LABA (neu me ta reba II laba)

15920) NIIV XII / VRT[E] TV, III / RIIBA TV, NIIV / CII (neu XII urt[e] tu, III reba  
tu, neu CII)

15921) VIILII / IAN OSO / LAGVN , MARCVS / N (Veleian oso lagun, Marcus n)

15922) NIIV / CORNII / ESKON (neu Corne eskon)

15923-2) MARIA / AMA / IITXII (Maria ama etxe (et X II?))

15924) HAIII? / ZVTI(K?) / VOIA (VDIA?) (haie(?) zuti(k') (?) voia (udia??))

15925) NIIV XII VR / NIIVRII AM? (neu XII ur(te) neure am(a))

16362) .....A....K / BA I (...a...k ba i )

16362-2) NIIV II [?] O? SI / C ..... NIIBA , (neu II o [?] si c... neba ,)

16363) .V... S I P?... / TA..SITAI / AMA (.v... sip (?) ta sitae ama)

16364-1) NIIV VIILIIIAN/ GORI BISI NA , (neu Veleian gori bisi na)

16365-1) NIIV LAIKII /ç L (grekoa) LOC, ) NA , / XIVRTIITV / VIILIIIAN / GORI /  
BISI TA / ESTA (neu laike (edo Laire) l loc(?), na / XI urte tu /Veleian gori bisi ta / esta)

16365-2) VIILIIIA NO / VVA BANA /OSO V POLI / TA, NIIV / RII ATA /  
ARAINA/ARRAPA (Veleia novva bana oso u polita, neure ata araina arrapa)

16366) IESVS ET /MIRIAN (Jesus et Mirian)

16366) VI TA / VIIL...N GORI (vi (?) ta Vel(eia)n gori)

17050) [G]EVRE ATA / ZVTAN / LVRA? (ZVRE?) ANA / SANTV / ??? ([g]eure ata  
zutun lura (?) zure (?) ana santu)

### c) AGERTZEN DIREN EUSKAL HITZAK\*

Ama (10), araina, aro[s], arrapa, ata (12), badi, bana, beta, beti, bisi (2), denos/deno, edan (2), egin, eskon, esta, etxe???, gau[r?], geure (6), gor(r)i (4), ian (2), ilta (2), isar, izana, (a)laba, lagun, laike (laire?), (a)mona, na (4), (a)naia (2), neba (2), nere, neu (8), neure (8), oso (2), polita, (ar)reba, Roman, (o)saba, (i)seba, santu, sua, ta (10), tu (6), Veleia-n (7), udia?? (voia?), ur-a (2), urdin (2), urte (2), zure (3), zutan (6), zuti(k?).

**Oharra:** ostraka.mundua.com blogean, guk aurkitu ezin izan dugun hainbat hitz agertzen da: athe, ather, ber, dan, ene, erre, ison, reinu... Lakarraren txostenean, berriz, entu (entzun?) eta esquero.

\*Guk aurkitu ditugunak. Pertsona- izenak kenduta. Parentesi artean, zenbat aldiz agertzen den bakoitza

### d) TESTUEN AZTERKETA LABURRA

#### 1) Zenbat

42 ostraka aurkitu ditugu interneten euskal hitz edo esaldiekin (gehiago omen dira). Denera, 160 bat euskal hitz agertzen dira. Horietako batzuk asko errepikatzen direnez, 50 bat euskal hitz ezberdin kontatu ditugu. Zentzua hartzen zaien esaldiak ere dezente dira: 20tik gora kontatu ditugu.

#### 2) Familia

Senitasunarekin lotutako hitzak dira ugari: *ama* (10), *ata* (11), *laba*, *mona*, *naia* (2), *neba* (2), *reba*, *saba*, *seba*. Deigarria da gehien hasierako bokalaren falta. *Ata* (aita) batzuetan gurasoa da eta beste batzuetan zeruko aita.

#### 3) Kristautasuna

*Abraham*, *Iesus*, *Ioshe*, *Maria*, *Mirian*, *Yavhe*, *Santu*... hitzak agertzen dira.

Esaldi gehienak kristautasunarekin lotuta daude. *Neure ata zutan* ia obsesiboki errepikatzen da (5). *Yavhe gure ata* ere ageri da.

#### 4) Koloreak eta adjektiboak

*aro[s]* (arrosa), *beta* (beltza?), *gor(r)i*, *urdin*, *zuri*, agertzen dira. *Polita* eta *lagun* adjektiboak ere bai.

#### 5) Beste izen arruntak

*araina*, *etxe???*, *isar*, *gau?*, *sua*, *ur-a*, *urte*.

#### 6) Izen propioak

Leku-izenez (*Roma*, *Veleia*) eta kristautasunari lotutakoez gain, bada hainbat pertsona-izen: *Cistiana*, *Corne* (Cornelio?), *Elosi*, *Mirto*, *Marcus*.

**7) Izenordainak eta posesiboak:** *neu* 8 aldiz agertzen da; *zutan* (zugan?) 6 aldiz; *giu* geu-ren errata izan liteke. *neure* (8), *geure* (5) eta *zure* (3) dira posesiboak.

**8) Lokailuak, graduatzaileak, adberbioak:** *ta* (eta) sarri agertzen da, nahiz eta batzuetan aditz laguntzailea (da) dela dirudien, eta *bana* (baina?). *oso* graduatzailea ikusten dugu *oso lagun Marcus* esaldian. *beti* eta *zuti(k??)* adberbioak daude.

## 9) Aditzak

**Nagusiak:** *arrapa, bisi, edan, egin, entu* (entzun?), *eskon, ian, il, izan*. Azken biak *ilta* eta *izana* irakurtzen dira. *Il ta* (hil da) ulertu behar dela dirudi; *izana* partizipioa izan daiteke edo agian *izan na* (izan naiz). Ez da aspekturik ageri.

**Laguntzaileak:** *na* (naiz?), *ta* (da), *esta* (ez da), *tu* (du), *badi* (bedi), *laike* (lagike, leike?).

**10) Grafia, fonetika.** Ez du polemikarik sortu alfabeto osoa agertzen den ostraka biribilak (15542), ohikoak omen zirelako garai hartan. Bertan, guk eskolan ikasi genituen alfabetoko letra guztiak agertzen dira (N eta S ez, zeramika hautsita dagoelako), J eta U (Vren bidez adierazten dena) falta dira bakarrik.

Euskarazko ostraketan, letra guztiak agertzen dira, F izan ezik; C, *Corne* izen propioan soilik; H, *HAI* enigmatiko batean eta izen biblikoetan soilik; K *eskon* hitzean soilik; Q, aztertu ezin izan dugun *esquero* hitzean soilik; R soila agertzen da beti, *arrapa* hitzean izan ezik (?); X, berriz, *etxe* edo auskalo zer jartzen duen ostrakan eta separazio ikur gisa; Y, izen biblikoetan eta *gory* batean. S bidez adierazita dago Z soinua ere (*isar, eskon, bisi...*), *zuri* adjektiboan eta izenorde eta posesiboetan izan ezik (*zure, zutan...*). Ustezko bi TZ soinuetarako (txistukari afrikari-bizkarkari-hobikaria ere deitua) ez da ezer erabili: *entu, beta*: entzun, beltza. II (*e* kurtsiba) erabili da ia beti E gisa, hitz hasieran izan ezik. Posizio honetan, IITXII (15923-2) hitzean aurkitu dugu bakarrik.

## 10) Veleia

Zazpi aldiz agertzen da hiri-izena. *Neu Veleian gori bizi na*, eta *XI urte tu / Veleian gori bisi ta* esaldi enigmatikoak tartean. “Ni Veleia gorrian bizi naiz” interpretatzen du lehena Patxi Alaña bere blogean. Veleia *goria* Veleia euskalduna izan litekela dio, *Veleia nova* (latinoa?) ere bi aldiz agertzen delako: *Veleia nova, Veleia bizi, eta Veleia novva bana oso u polita*.

## 11) Esaldiak

Esan bezela, badira hogeitabi esaldi zentzuren bat hartzen zaienak. Hemen deigarrien batzuk: 1-*Neure ama, Roman ilta, Cistiana*. 2- *Neure ata gaur ilta*. 3-*Neu XII urte tu, III reba tu*. 4- *Neu Corne eskon*. 5- *Veleian oso lagun, Marcus*.

## 12) Hitzen jatorria

Izen propioak aparte utzita, 40-45 hitz ezberdin kontatzen ditugu. Denak dirudite euskararen ondare zaharrekoak, latinetik letozkeen *aros, arrapa, polita* eta *santu* izan ezik.

#### e) POLEMIKA SORTU DUTEN GAI BATZUK

1) **Aspirazioa.** Deigarria da aspirazio falta, garai beretsuko Akitaniako euskal izenetan edo 1025eko San Millango Errejako herri-izen arabarretan nonahi agertzen baita **h** letra. Ostraketan NAIA agertzen da birritan (13367, 13368), eta NANIA, NAHIA, NAHIIA edo horrelako zerbait espero behar omen zenez, Lakarrarentzat hori ia nahikoa da ostraken faltsutasuna frogatzeko. Sinesten dugu aspirazioan, baina baliteke aNAIA izatea hemen irakurri beharrekoa, familia-izen gehienak hasierako bokalik gabe ageri baitira ostraketan: NEBA, REBA, LABA, SOBA, SEBA, MONA.

2) **Artikulua.** *Araina, sua, ura* eta beharbada *lura* agertzen dira, artikulua eta guzti (*naia-z* eta *izana-z* jardun dugu beste nonbait). Lakarrak bere txostenean dio artikulua geroago sortu zela euskarari, hizkuntza germaniarretan bezala, VIII. mendetik aurrera. Erakuslearen *ha(r)* omen da funtsean. Ez dakit. Ostraketan bederen agertzen dira artikulua. Errejako Arabako herri-izenak aipatzen ditu berriro, eta *-ha* amaitzen omen dira asko, hots, hatxedun artikulua, edo *-hea* artikulua pleonastikoaz. Mixelenaren *Textos Arcaicos Vascos*-eko zerrenda osoa erreparatu dugu, eta egia da *-ha-z* amaitutako mordoxka dagoela: Barolha (Baroja) Harriolha (Arriola), Hascarzaha (Azkartza) Hillarrazaha (Ilarratza), Adurzaha (Adurtza), Hamezaha (Ametzaga) eta beste banaka batzuk. Baina nik ez dut hor artikulurik ikusten, *a berezkoa* baizik. *-hea* amaitzen den kasu bakarrean, (Elhorzahea) esango nuke *Elortzabea* transkribatu nahi zela. Eskribauak ez ote zuen askotan *h* erabili *-tza, -lla, -ja -ga* edo horrelako soinuak transkribatzeko? Dekoratiiboak ez ote dira batzuk? Izenak hatxez josita daude eta denak ezin aspiratuak izan: *Hagurahin, Gastehiz, Harhaia, Zalduhondo...* Bestalde, artikulua nabarmena ageri duten izenek ez daramate hatxerik azkenean: *Hazpurua, Larrea, Ermua, Zuhiabarrutia, Olharrea, Carraluzea...* Agian uste baino zaharragoa da artikulua, eta uste baino lehenago galdu zen aspirazioa.

3) **Grafiaz.** Z eta K agertzen direlako harritu egin da zenbait (K, *eskon* hitzean bakarrik. 13368). Euskara modernoaren usaina botatzen omen dute. Grekeratik hartutako letra hauek oso gutxi erabiltzen ziren latinez, baina ezagunak ziren eta erabiltzen ziren inoiz, beste hizkuntza batzuetako hitzak transkribatzeko, batez ere.

Gorrochateguik mundu bat egin du ANQVISES (Eneasen aita) izena agertzen delako ostraka batean (11042). Badirudi beretzat faltsutasun froga definitiboa dela. ANCHISES idazten omen zen beti, eta goiko transkribaketa espainierarena omen da soilik. Baina latinez arrunta zen Q letra (Ik.15542-ko abecedarioa). Adibidez, *anquisitio* edo *inquisitio* (inkisizioa) idazten zen, edo *anquina* (soka), *inquietare* eta abar, nire latinezko hiztegi potoloaren arabera. Beraz ez da hain harrigarria veleiatar ez oso eskolatuak horrelako ortografia faltak egitea. Beharbada hemendik mila urtera norbaitek filologoaren txostena aurkituko du, eta GORROCHATEGUI izenpetuta ikustean, erraz demostratuko du ezinezkoa dela, eta ondorioz faltsua, garai hartako (honetako) grafiaren arabera GORROTXATEGI agertu behar zuelako.

4) **Polita** (16365-2) gaskoieratik pasatu omen zen XI-XII mende inguruan euskarara. Ez dakit. Eztabaidatxo bat izan nuen unibertsitateko filologo batekin foro batean. Esaten zidan, izatekotan BORITA agertu beharko zukeela, euskarak artean ez zuelako *p*-rik onartzen hasieran, eta bokal arteko *l r* bihurtzen zuelako maileguetan. Ez noa zalantzan jartzera arau horiek, baina zientziaren aurretik zentzua dagoela uste dut, eta veleiatar elebidun batek “Veleia Nova polita est” esaten bazuen latinez (*politus, polita politum*, hitz arrunta zen), eta bere amak “zer esan duzu?” galdetzen bazion, “Veleia nova polita ta (da)” erantzungo zuen seguruenik. Ez zitzaizkion ezpainak edo ahosabaia hondatuko *p* edo *l* ahoskatzeagatik.

5) **Denos, Deno** hitzak agertzen dira (*denoc* bat ere aipatzen da, baina nik ez dut inon aurkitu). “Denok” gisa interpretatzen du Lakarrak, eta forma hori oso modernoa dela azaltzen du,

horretarako datu ugari emanaz. Beste batzuetan ez bezala, oraingoan konbentzituko ninduen, *denoc* beharrean *denos* irakurriko ez balitz (13368). *Denos zure naia*, “denok zure nahia” bezala interpretatzen duela dirudi, jainkoaren nahia edo. Baina *Denos* ipintzen du, eta ez ote da pertsona izena? *Denos zure naia*: “Denos zure anaia”, alegia? *Ian / ta/ edan / deno* dio beste ostraka batek (13367). Bai, interpreta daiteke “jan eta edan denok”, baina *Denos* pertsona-izena ere izan daiteke, aurreko bera; azken letra ezabatuta dagoela dirudielako, eta elkarren segidako ostrakak direlako.

6) **Descartes**. Aretoa barreari eutsi ezinda egon omen zen Batzordeko Madariaga kimikariak DESCARTES jartzen zuela informatu zuenean, Lotitez itsatsitako pieza batean. Hamaika ikusteko jaio ginen! Faltsutzaileak ezjakinak ez, subnormalak ziren. Baina argazkia ikusita (11709-2), irudimen handia eta letxe txar handiagoa behar da DESCART irakurtzeko. Badirudi MISCAR edo horrelako zerbait jartzen duela.

7) **Komak**. Gutxienez 10 euskal ostraketan komak (edo antzeko zerbait) agertzen dira; latinistek eta oro har grafiaz dakitenek aho batez diote ez dela komarik erabili izan garai modernora arte. Ez dut esplikaziorik honetarako. Egia da ez direla marra okerrak edo oblikuak, ohiko komak bezala, zuzenak, bertikalak eta handi samarrak baizik, baina gehienetan badirudi gaur komak egon ohi diren leketan daudela. Ez dakit zer pentsatu.

8) **Beste gai polemiko batzuk**. Latinezko esaerak, gurutzeak, sirenak, hieroglifo tankerakoak, Nefertiti..., “tinta-errekak” isuri dira gai horien inguruan txostenetan eta foro ezberdinetan. Ilustratu nahi duenak badu nora jo.

#### f) ONDORIO GISA

Norbaitek esan zuen errazegi ulertzen zirela Veleiako euskal testuak. Ez da guztiz egia. Hori uste duenak transkriba ditzala ulertzen ez ditugunak, ez baitira gutxi. Beste norbaitek, ez zela ia ezer errepikatzen, eta hori ez dela normala ustezko *paedagogium* batean. Hau ere ez da egia, *Geure ata zutan* eta antzeko esaldiak ia obsesiboki errepikatzen baitira. Geure ezjakintasunean, zahar usaina hartzen diogu euskara honi: bokal falta familia-izenen hasieran (*reba, laba...*), *na, ta* eta *tu* aditz laguntzaileak, ergatibo eta aditz aspektu falta, agertzen diren koloreak, eta abar. Bestalde, ez dirudi iruzurgile euskaldun berriek, ez euskararik ez latinik omen zekitenek, hanka-sartze ikaragarriak egin dutenik.

Faltsutzen hasita, uste duzue egon daitekeela hain gauza arraroak asmatzeko gauza den burmuin bihurrik? Ostrakei halako zahar itxura eransteke gai den esku treberik? Pieza manipulatuak behar den lekuan koloka ditzakeen azeri maltzurrik? Eta dena batera? Atzera esan beharrik ez, benetakoak direla sinesten jarraitzen dut. Ez dut baztertzen tartean batzuk faltsuak izatea. Edo benetako zenbaitek letrak edo zeinuak gehituta edukitzea. Zentzu honetan, atenzioa eman dit 16365-2 piezak, *Veleia novva bana osou polita, neure ata araina arrapa* dioenak. Gehiketak edo aldaketak ez ote daude eginda? Azpiko *araina arrapa* hori... Ez dakit. Pieza faltsuak edo manipulatuak badaude tartean, identifikatu egin beharko dira. Gaur egungo laborategi espezializatuek dituzten bitartekoekin ez dirudi zaila.

Prensa-artikuluaren nioen bezala, jende asko ari da nazioarteko batzorde zientifiko bat izendatzeko eskatzen, dena berrazter dezan. Zentzu honetan, bat egiten dut Iruña-Oka Argitu Dezagun manifestuarekin. Puntu batekin ez hainbeste: zentzuzkoa dirudi, gertatu dena ikusita, indusketak momentuz bertan behera uztea.

Faltsuak direla demostratzen bada, barka eskatuko diet molestatu ditudanei, eta astebeteko barau eta bijilia egingo dut penitentzia gisa, kokolo hutsa izateagatik. Benetakoak direla demostratzen bada, ikaragarri poztuko naiz, euskal munduko guztiok bezalaxe, nik uste.

## EUSKARAZKO OSTRAKETAKO HIZTEGI TXIKIA

ABRAHAN	IOSHII
AMA (9) AM. (2)	ISAR
ANA (?)	ISON? (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)
ARAINA: arraina	IVAN
AROS: arrosa? Kolorea	IZANA
ARRAPA	LA (atzizki sintaktikoa?)
ATA (11): Aita. Batzuetan familiakoa, gehienetan zerukoa	LABA: alaba
ATHE (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	LAGVN
ATHER(ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	LAIKII (LAIRII?): <i>leike</i> laguntzailea? <i>Laire</i> izen propioa?
BA	LVRA? ( <i>zure</i> ere irakur daiteke)
BADI: <i>bedi</i> ziurrenik	MARCVS
BANA: baina?	MARIA
BER (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	MIRIAN
BIITA: b(el)t(z)a, agian	MIRTO: pertsona izena
BIITI	MONA: amona
BISI (2), VICI (1)	NA (4) naiz aditz laguntzailea?
CISTIANA: pertsona izena	NAIA (2): anaia, gure ustez
CORNII: Cornelio/a	NIIBA (2)
DAN (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	NIIRII
DIINOS, DIINO: pertsona izena?	NIIV (8)
EDAN, EDA	NIIVRII (8)
EGIN	NOVA, NOVVA (Ik. Veleia)
ELOSI: pertsona izena dirudi	OSO, OSOV
ENE (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	POLITA
ENTV: ent(z)u(n)? (Lakarraren txostenean aipatua, ez dugu argazkietan aurkitu)	RIIBA. Arreba
ERRE (ostraka.mundua.com. Ez dugu argazkietan aurkitu)	RIINY? <i>reiny?</i> (13364)
ESKON	ROMAN (2): Erroman
ESQUERO (Lakarraren txostenean aipatua, ez dugu argazkietan aurkitu)	SABA: osaba
ESTA: ez da?	SANTV
GAV: kontestuagatik “gaur” dirudi.	SIIBA: izeba
GI(DA)TV? Ez da ongi irakurtzen	SVA
GIIVRII (6)	TA (10) Batzuetan <i>eta</i> , beste batzuetan <i>da</i> laguntzailea
GIV: <i>geu</i> -ren errata?	TV (6) <i>du</i> laguntzailea dirudi.
GORI (3), GORY (1)	VDIA (VOIA?) ? (15924)
IAN (2)	VICI (Ik. bisi)
IAVIII (Ik. YAVHII)	VIIIIIA (2): Veleia
IISVS	VIIIIIAN (4)
IITXII? <i>Etxe</i> ??? ala <i>et XII</i> (zenbakia), ala <i>II t x</i> (separazio aspa) <i>III</i> (?)	VIIIIIA NOVA , VIIIIIA NOVVA
ILTA (2): <i>il ta</i> (hil da) ziurrenik	VR, VRA
	VRDIN (2)
	VRTII, VRT
	YAVHII (3) IAVII (1)
	ZII (?)
	ZVRII (2), ZVR. (1)
	ZVTAN (6)
	ZVTI(K?) (15924)

